


ZARR

BIZKAITARRAI-BIZKAIERAZ*

251n. zenbakia
maiatza 2000



BIZKAIKO FORU ALDUNDIA
KULTURA SAILA
LAGUNTZAILLE



DONOSTIA
EUSKALERRIKO ITXAS-BAZTER
ZORAGARRIA

ENEPERI

ENEPERI izena (eta jai eguna) sano ezaguna da bakiotar eta bermiotarren artean. Egon be, Bakiori lotu-lotuta dago. Beraren jatorria zein izan leiteken, azaldu gura deustut, irakurlea, emen dakartsuedazan urrengo lerrootan.

Labayru eta Iturriza istoriagileen arabera, Gaztelugatxeko San Joan Bateatzaile baseleizearen leen aitamena XI. gizaldikoa da. 1053. urteko agiri baten Gaztelugatxeko eleizea Aragoiko San Juan de la Peña izeneko monastegiaren ardurapena lotu zata dakar, Bizkaiko Jaunak areri doarik emonda edo.

1172. urtean, barriro be, Santa Maria de la Vid izeneko ordena premotratensiarri emon eutson Gaztelugatxeko baseleizea Bizkaiko Jaunak, bertan monastegia sortu eien, aurki.

Orregaitik guztiorregaitik eta eleiztarrentzako aragino joatea asago eta neketsu egiten ekielako, arean ezeroso, San Pelaio baseleizea egin eben XII. gizaldian. Eleizkizunetara joaten jarraitu aal izateko, azken baten.

Alan eta guztiz be, San Joan eta San Pelaio parrokia bakarra izan ziran. Ilerria San Pelaion egon bazan be, San Joanen egon zan bateo ponte.

1495. urtean, Gaztelugatxeko San Joan Bateatzaile baseleizea 100 urtean bertan beera itzita egon ostean, konpondu eta barriztau egin eben. Urte aretako dagonilaren 29an, leenengo erromeria egin zan Gaztelugatxe inguruko Urizarretako zelaietan (orduaz Oruezarreta), arean da, gaur egunera arte errian bizi-bizirik iraun daben "San Joan Dolozak" edo "Sanjolazak" jalen leenengo ospakizuna.

Jai egun orreri "San Joan Doloz eguna" edo "Sanjolaz eguna" esaten jako, eta an goian egiten da.

Urrengo jai egunari, dagonilaren 30a, "San Joan Doloztxu eguna" edo "Sanjolaztxu eguna" esaten jako eta Bakion egiten da.

Baina irugarren jai eguna "Eneperi eguna" da eta Urizarretako zelaietan egiten da, an Gaztelugatxeren begiradapean. "Eneperi eguna" dagonilaren 31an egiten da.

Zalantza barik iru jai egunok San Joan Bateatzailearen inguruko jaiak dirana, au da, berari samea ebagi eutsoela ospatuten danekoak.

Kontua, baina, ez da emen amaituten. "Eneperi eguna" Bizkaiko beste leku batzuetan be egiten da. Esate baterako, Mungiako Belako auzoan dagoan San Anton baseleizearen inguruan, egun beratan, dagonilaren 31an eta

"Eneferiak" izenagaz. Berberori, oker ez banago, izena edo gogoratuten ez dodan Galdakao eta Usansoloko baseleiza baten inguruan be.

Nire eritxi apalean, **ENEPERI** izena **DONIENE FERIA** (--► ENE+PERI) izenetik dator. San Joanen omenez egun beratan egingo zan feriea dala eta, ziurran-tzean.

Sasoi baten, Bizkaian zabal egingo zan jai, aurki.

Esan bear da, beste alde batetik, leen Gaztelugatxeko San Joan-eri Doniene esaten ekiola. Alantxe esaten jako Bermion. Gaur egun, zaarren artean oraindikarren, bagilaren 24aren inguruan egiten diran jai "Donieneak" esaten jake, bai Bakion bai Bermion be.

Beste alde batetik be, San Pelaio eguna edo jai, bagilaren 26an, oster, dagoniletik asago dago. **ENEPERI** orren ekandu eta kulturatik asago. Eta ez dot uste Doneperau (San Pelaio, euskera zaarrea) izenak aregaz eze-lango zerikusirik euki leikenik, anterea euki arren.

Amaituteko, agoskerea jagon bear dala eta, bai "San Joan Dolozak" bai Urizarretaren ondoan dagoan "San Joan Alde" baserriaren izena era onetara esaten dira Bakion zein Bermion gaur egun:

San Joan Dolozak (sandxondolosak edo sandxolasak)

San Joan Doloz eguna (sandxondolos egune edo sandxolas egune)

San Joan Doloztxu eguna (sandxondolostxu egune edo sandxolastxu egune)

San Joan Alde baserria (sandxoanalde)

Iniaki MARTIARTU
2000ko martian



BIZKAIKO FORU ALDUNDIA
KULTURA SAILA
LAGUNTZAILLE

BAKIO SURF TALDEA (BST)

Bakioko Surf Taldeko idazkaria dan Jokin Arroyo Uriartegaz berbalditxu bat euki dogu eta berak azaldu deusku gitxi gorabeera zeintzuk diran euren egin-kizun eta elburu nagusiak. Olan, askorentzat ezezaguna izango dan Bakioko kirol talde ori obeto ezagutuko dogu.

ZER: Zelan eta noz sortu zan BST?

Jokin Uriarte: Bakioko aretzea eta surfa guretzako garrantzitsuak dira, eta gure asmoa surfa lantzea eta gure atzetik datozen gaztetxuei laguntzinoa emotea da, eta orren ondorioz sortu zan gure taldea 1955ean. Aretzeak euki leikezan eraginek be arduratuten gaitue. Igaz, esaterako, arearen arazoaren inguruan or ibili ginen mugituten.

Beste ekintza garrantzitsu bat surf ikastaroarena da, eta esan bear da, joan dan udan orretan neskak izan dirala mutilak baino ugariago.

Orrezaz ganera, urtarrilean eskiatzera joateko txangoa egongo da, BSTk diruz lagundutakoa izango dana.

ZER: Orduan, gure errian surfaren etorkizuna ziurtatuta dago, ezta?

JU: Baietz esan geinke.

Bazkideen artean geienak mutilak dira, baina badatoz neska gaztetxuak be atzetik.

Jazoten dana da, surflari moeta bi dagozala: bata, urte guztian zear uretan sartuten dana eta bestea, surfa udan baino egiten ez dauana.

ZER ALDIZKARIA

Ordaindu, mesedez, ZER aldizkaria! (3.000 pezeta) kontu onetan:

EUSKERAZALEAK

BILBAO BIZKAIA KUTXA

Bilbao, 2095 0000 7 4 20.000 8961-5

Adiskide! Mesedez ZER aldizkaria aurrera eroaten lagundu eiguazu!

Ebagi orri onetan txarteltxu au eta eroan BBK'ra eta ordaindu 3.000 pezeta. Ez dozu ezer be idatzi bear.

Baiña aztu barik esan Kutxan zeure izena eta zeure erriarena.

Eskerrik asko!

ZER: Zelan zagoze egituratuta eta zenbat inguru zaree? Zenbat bakiotar?

JU: Alkarte normal baten modura gagoz egituratuta, au da, leendakaria, idazkaria, diruzaina eta bokalak daukaguz, baina batzarretako eztabaida guztietan bazkide guztiok artuten dogu parte.

Momentu onetan, 172 bazkide gara.

Orreetatik berrogeita amar inguru boogiegaz dabilzanak izango dira eta beste guztiak surflariak dira.

Errian erroldatuak erdia baino gitxiago izango gara, baina bazkiderik geienak, udatiarrak izateaz ganera, neguan be asteburuero datozenak dira eta euretariko asko bakiotar sentiduten dira.

ZER: Zeintzuk dira urtean zear egiten dozuezan eginkizunik nagusienak?

JU: Ulertuko dozuenez, geien bat udaroan izaten dira.

Erriko txapelketea antolatuten dogu urtero.

Gaztetxuak eroaten doguz kanpoko txapelketetara eta olan, eurei gauzak erreztu egiten deutseguz.

Joan dan udan Europa mailako txapelketa egin zan Bakion.

Orrek guztiorrek esan gura dau Bakioren izena komunikabide eta leku askotan agertu izan dala.

Surfak daukan arazo bakarra, material garestiarena da, gazteentzako batez be. Baina ori guztiori asikeran jazoten jakun gauzea da.

ZER: Laguntasunik jasoten dozue?

JU: Bai, laguntzinoa Federazinoak eta Bakioko Udalak emoten deuskue eta gero guk geure kontura ataraten doguna, au da, jaietako txosnan, salduten doguzan zapatila eta sudaderak, eta abar.

ZER: Zein da zeuon eritxia aretza inguruan egiten diran bear eta proiektuetaz?

JU: Azkenean, norberak eritxiak daukaz, baina neure ustez, esaterako, aretzako ibilbidea naiko ondo lotu da eta arearen arazoa be or egon da.

Orain kirol portuaren proiektua dago. Nik uste dot naiko gatxa izango dala egitea, baina, seguruenez, guretzako ezinbestekoak diran olatuei kalte andia egingo deutse.

ZER: Eskerrik asko Jokin eta urrengora arte.

UNAI BEITIA

BAKIO

BERBAURREA

Urte barria, gizaldi barria, milurteko barria, ainbat gauza batera eta eurok gauza bat.

"Barri" berba orren atzean etorkizunean itxaropena dago, aurki. Gure biotzetan itxaropena egon badago, beintzat.

Biar-etzi zer izango, zer jazoko. Arteak artu ezinik begiratu bear deusogu etorkizunari. Itxaropenez betete, baiña!

Ez da makala Euskalerrriak aurrean daukan aupadea. Euskalerrriko seme-alabek joko bizian sartu bear izango dogu gure burua.

Baina joko orretatik buru tente urteteko zuur be zuur jokatu bearko dogu eta, batez be, alkartuta. Txapel bakarra buru asko janzteko naikoa izan ez arren, ikasi egin bearko dogu, danok burutsik ibili ez gaitezan.

Baina orretarako bearrezkoa da itxaropena, etorkizunean itxaropena. Une zorientzua izan daizuela!

BAKIO UDALBILTZAN

Euskal erri osoko udalak alkartuko dauazan nazino erakundean sartutea erabagi eban Bakioko Udalak aurtongo urtarrilaren 15ean.

Egurdiko amabi-amabietan asi eta udaletxeko Batzar Aretoan egin dako 10 minutuko osoko batzarrean, bertan batu ziran EAJ, EH eta EA alderdien udal ordezkariak, ago batez, erria UDALBILTZAN sartuteari baietz esan eutsoen.

Euskalerrriak aurrera egin daiala!

ESPETXERATUEN ESKUBIDEAK

Euskal presoen eskubideak urrtu egiten dabez bein eta barriz Espainia eta Frantzia aldeko espetxeetan, euren legeek bestetara agindu arren be.

Zuzenbakokeria ori ikusi eta onartu ezinik, Bakioko alderdi politikoek (EAJ, EH eta EA), irurak bat eginda, euren asarrakuntza bizia eta protestarik sendoena agiri be agirian itzi gura dabe.

Ori egin ez eze, erritar guztiei isileko amabosterik beineko agerraldietara eurakaz bat egiteko be deitu deutsee. Agerraldiok udaletxearen aurrean barikuetan, arratsaldeko 8.00etan egiten dira.

Egunotan, ekimenok ugari be ugariak dira Euskalerrrian zear. Entzun-go aal deuskue Madrilen: Euskal atxiloak etxean orain!!

ERREKA EGUNA -99

Urte guztietan lez, aurtun be ibili dira Urkitza ikastetxeko umeak *Ojaorta* errekea edo erriko erreka nagusia garbituten.

Joan dan zemendiaren 14an, erreka nagusiaren goiko alderditxu bat garbitu eben, Tabernalde ondoko alderdia, atan be. An ibili ziran, jo ta ke, ume, andereño eta udaletxeko beargin batzuk errekan egon ziran sarrak batuten. Esan bear da, benetan loikeri andia bertakoa! Danetariko sarrak. Alan da ze, makinatxu bat zaku bete ebezan eurakaz.

Urtean-urtean ekintza au egin arren be, urtean-urtean egoten da erreka sano loituta. Erreka jagon bear dogu, askoz obeto baina. Guretari-ko bakotxak. Izan be, erriko ur-zana dogu, eta ez leba gitxikoa, gero!

ALAITASUNA ALBISTEAKAZ

Igazko eskubidea dakarre aurtongo urterako be, au da, *pelotaleku barri eta egokia*. Makina bat arazo dauke daukagan pelotalekua dala-eta.

Neguan, batez be. Euri apur bat egin ezkerroan, teiltuaren zuloei dariezan itoginek bustitako beak galazoten deutse partiduak eratutea zein entrenamenduak egitea.

2000. urtean be, 1999an asitako erronkeari eutsiko deutsoe. Oporraldiaren ostean, bigarren fasea asiko dabe, esate baterako:

eskupeletan:	umetxuak.....iru bikotetan umeak.....bikote bakarrean gaztetxuak.....bikote bakarrean
palan:	gaztetxuak.....bikote bakarrean gazteak.....bikote bitan

Lau, bost eta sei urteko umeek psikomotrizitate jokoak eukiko dabez. Nagusiak ostera, "El Corte Inglés" dalako txapelketatik kanpo lotu ziran. Urte barriagaz batera "Gabonetako III. Eskupeleta Txapelketa" jokatu eben.

Daukezan asmoetariko bat "Gomazko Pelota Txapelketa", leengoaren ostean, errian eratutea izango litzake.

San Joseko "24 Orduak" txapelketearen antzera, gomazko txapelketeak badaualako erritar askoren artean arrakastea.

Beste alde batetik be, laster "Udabarri" dalako txapelketari ekingo deutsoe.

ITXAS-ALDEREN BARRIAK

Aurtongorako, orman eskegiteko urteko egutegia atara dabe, taldekoen artean bananduteko asmoagaz baina. Alan ta guztiz be, inork egutegia eskuratu gura badau, doala taldekoakaine eskatuten.

Udako dantzaldiak prestetan asi dira, daborduko.

Garagarrilaren 8tik 10era Frantziako Niemesen izango dira euskal folklorea zabalduten.

Urrengo ilean, agorrilaren 7tik 10era, Bulgariako uriburua dan Varnara joango dira dantzaz egitera.

Bien bitartean, Bakion egin oi dan Nazionarteko Folklore Jaialdian. Eskoziako talde bat ekarriko dabe aurtun.

ABESBATZA

Kontzezinoko zubian Bakioko Txistulariakaz batera Castro Urdialesean kontzertua egin ostean, abenduaren 26an, Gabonetan, meza nagusian abestu eben abesbatzakook, bertan Txikien Abesbatzak be esku artu ebala.

Txorierriko Gabon Kantan kontzertuetan be izan ziran, abenduaren 30ean Lezaman eta urtarrilaren Sean Derion, izan be.

Datorren udabarrian, BBK-ak babestutako Udabarriko Kontzertuak dalako ibilbide orretan abestuteko ensaieran dabilz. Maiatzaren 6an Zierbenan, maiatzaren 20an Zornotzan eta bagilaren 3an Bakion abestuko dabe, Zornotzako Brioletak Abesbatza eta Zierbenako Berdantza Abesbatza lagun izango dabezala.

Lekeiton be abestuteko dira, oraingoz noz izango dan ez jakin arren.

ANTZEZKIZUNA

Urtarrilaren 14an, eskolako oktogonoan, Zeanuritik etorritako "Uri-beko Antzerki Taldea"-k saio bi eskaini euskuzan:

"Amama Benidorretik"

"Kaka Trosko"

Leenengo antzezlan 20.15etan asi zan eta san-era doarik izan zan. Antolaketa lanak Bakioko Euskera Batzordeak bete ebazan.

SOINU TRESNAK

Euskalerriko soinu tresnen inguruan berbetan eta euretariko batzuk zelan jotzen daberen erakusteko urreratu ekigun Juan Mari Beltran gipuzkoarra.

Kultur Etxeko aretoa beteta egoan urtarrilaren 28an, eta ordu bitik gorako saioan danetariko jakingarriak eta doinuak entzuteko aukerea izan genduan.

Benetan interesgarria! Entzuleek eurrez egin eutsuezan itaunak. Bakioko entzuleen aldeko erantzun beroa zala-eta, poz-pozik egoala esan euskun Juan Marik.

Euskalerrian arlo orretan geien dakienetarikoa da, gaur egun, Juan Mari Beltran. Juan Marik TXANBELA euskal folka egiten dauan musika taldekoa da.

IPARRALDEKO GURE IRRATIARI LAGUNTZINOA

Bakioko Udalak diru laguntzinoa emon deutso Iparraldeko GURE IRRATIA (Lapurdin) deritxonari.

Ekintza orren bidez, Udalak euskerearen aldeko politikea argi eta garbi itzi gure izan dau.

Izan be, GURE IRRATIA euskeraz oso-osoan egiten dauan irratia da. Iparraldean euskera utsez egiten daberen beste irratia bi be badagoz: Irulegiko Irratia (Nafarra Beerean) eta Xiberoko Boza (Xiberokan).

IBILALDIA KOSMOSEAN ZEAR



Urtarrilaren 25etik zezeilaren 4ra Kultur Etxeko aretoan ikusgai egon dan erakusketearen argazki bat dakargu emen alboan. Kosmos-aren ingurura eroan gaitu erakusketa orrek. Gure lurra txiki lotu dala, kosmos-ak bere barruan gorde ten dauazan isilpeko eta eskutukiak zeozelan gureganatu gura izan dabez erakusketearen bitartez.

GABONETAKO EGITARAUA KULTUR ETXEAN

Abenduaren 28an eta 29an, 4 urtetik 7 urtera bitarteko umeentzat tailerrak, arratsaldeko 4:30etatik 7:30etara. Egun bietarako txartelak 500 pta. balio eban.

Abenduaren 28an eta 30ean, eta urtarrilaren 4an eta Sean, Gazteen-tzako Zinea Kultur Etxeko bideo-gelan, arratsaldeko 6:00etan.

Urtarrilaren 2an, Gabonetako Parkea probalekuan, goizeko 11:00etatik arratsaldeko 2:00etara eta arratsaldeko 4:30etatik 8:00etara. Sarrera doarik. Bertan rokodromo, windsurf jokoak, puzgailuak eta txikientzako ludoteka egon ziran.

Erakusketak:

— Abenduaren 15etik 30era arte, Jose Ignacio Lobo'ren argazkiak.

— Urtarrilaren 3tik 14ra arte, Jorge Garcia'ren marrazkiak.

BAKIOKO XII. IDAZLAN LEIAKETEA

Aurtengo leiaketako 22 idazle eta irabazleen izenak urrango oneexek doguz:

Leenengo mailan (7 urtetik 10 urtera):

Ainize Martinez
Tomas Madariaga
loritz Uriarte
Mikel Basterra
Beñat Elgezabal (irabazlea)

Bigarren mailan (11 urtetik 14 urtera):

Iraide Ormaza
Samadhi Letelier
Encarni Fernandez
Markos Mardaras
Oihane Longarai
Irati Barrenetxea (aitamen berezia)
Lainoa Bilbao (irabazlea)
Irugarren mailan (15 urtetik 18 urtera):
Lide Madariaga
Anartz Ormaza
Oier Bilbao
Iñaki Aretxabaleta
Gotzone Uriarte (irabazlea)

Laugarren mailan (19 urtetik aurrera):

Naiara Ugalde
Ainara Madariaga
Karme Uriarte
Birjiñe Bilbao (irabazlea)

LOGOTIPO LEIAKETEA

Bakioko Euskera Batzordeak beraren logotipoari buruzko leiaketea antolatu dau.

Lan bakotxa DIN A4ko orri bitan agertu bear da, bata koloredun eta bestea zuri-baltzean.

Onez ganera, gutunazal txiki baten, egilearen zeaztasunak jakitera emon bear dira.

Epea urtarrilaren 12an amaituko da.
Saria 20.000 pta.koa izango da.

KARTEL LEIAKETEA

Bakioko Udalak 2000ko San Jose jaietarako kartela leiaketearen bidez aukeratzeko deialdia zabaldu eban urtarrilaren.

Sari bakarra 75.000 pezetakoa izateko zan eta lanak aurkeztuteko epea zezeilaren 14an amaituten zan.

Oinarriak eta kartelak aurkeztuteko lekua: Bakioko Kultur Etxea.

ALBISTEAK

XIBEROKO MASKARADEA

Xiberoan aratoste aldia bertan baino luzeagoa eta biziagoa izaten da.

Urtarrilean asi eta apirilera arte irautean dau. Bertako aratostea edo inauteria Maskarada izenez ezagutzen dogu.

Maskaradea antzerki-dantzaldia da eta domekara erririk erri eroaten dabe Xiberoan zear eratzailcek.

Maskaradearen oinarriak dantzak eta Pitxuren eriotzea ta biztea dira.

Aurtongo Maskaradea Atharratzeko gazteek eratu dabe eta urrengo errietara eroango dabe ikuskizun:

urtarrilaren 23an	Atharratzen
urtarrilaren 30ean	Ligin
zezeilaren 6an	Eskiulan
zezeilaren 20an	Muskildin
zezeilaren 27an	Arrokiagan
martiaren Sean	Altzurükün
martiaren 19an	Garindainen
apirilaren 23an	Barkoxen

BAKIOKO EUSKERIA -8

Sarritan. galdu artean ez gara konturatuten etxean zer daukagun. Aor, bada, bertoko euskerea. Askok uste leiken baino ederragoa eta aberatsagoa da. Jagon daigun!

Oarra: Era bitara dakarguz, esaterako,

—zelan idatzi bear dan: "edur-uria"

—Bakion zelan esaten dan: "(edur-uridxe)"

EDUR TA EDUR

Edurraren generako urrengo berbak eta esakuneak batu doguz Bakioko euskeran. Egon be, geiago egongo dira, ziur. Alan bada. dakizuezan berba edo esakuneok geuri esateko eskatu gura geunskizue ametik TXIRRITXOLATIK.

edurra (edurre)

edur-uria (edur-uridxe) = edur-bustia

uri-edurra (uri-edurre) = edur-bustia

edurra da (edurre da)

edurra egin dau (edurre ein dxeu)

edurra dakar (edurre dakar)

edurtuta egon (edurtute on) = edurrez estalduta egon

edurtzea (edurtzie)

edur-zee (edur-zie) = edur-urri eta edur-matearen artekoa

edur-matea (edur-matie) = edur malutea, edur-lumea

edur-bolea (edur-bolie) = edur lumea baino andiagoa

edurra fara-fara egin (edurre fara-fara ein) = edurra astiro-astiro

egin

edurra zara-zara egin (edurre sara-sara ein) = edurra astiro-astiro

egin.

edurra firi-firi egin (edurre *firi-firi* ein) = edurra astiro egin

edurra ziri-ziri egin (edurre siri-siri ein) = edurra astiro egin

edurra zarra-zarra egin (edurre sarra-sana ein) = edurra currez

egin

edurrak bea loditu (edurrek beie loditxu) = edurra currez egin

edurra plasta-plasta egin (edurre plasta-plasta ein) = edurra

currez-currez egin

"edur urte, gari urte" ("edur urte, gari urte") (errefraua)

TABAKOA KULTUR ETXE ETA UDALETXEAN

Tahakoa kalte-kaltegarria dana ez jako inori ostenduten. Norberak erretan badau, ba or konpon! Baina zer da. norberak inoren tabako kea, gura ezda be, erre bear dauanean? Or dago kakoa. Erretzaile pasibo biurtuten da norbera, eta orregaz batera, norberari osasuna laskitu egiten jako eta apurka-apurka bera galdu eragin be. Bai. erretzaile danari egiten deutson besteko kalte egiten deutso tabakoak erretzaile pasibo edo beartua danari be.

Eusko Legebiltzarrak lege bi onartu ebazan tabakoaren aurka edo, obeto esanda, guztion osasunaren alde egiteko, bata, 1988koa, eta, bestea, 1998koa. Lege biok ainbat lekutan galazoten dabe erretea, esate baterako, aizebide naikorik ez daben toki publikoetan, leku itxietan egiten diran ikuskizun publikoetan,..., batez be, 18 urterik beerakoak egoten diranetan.

Kultur Etxean zein Udaletxean ainbat leku itxitan erretan da tabakoa, ezelango muga edo neurri barik, barbarako: batzar geletan, bideo gelan, entsaio gelan, erakusketa gelan, ibiltokietan,... Legearen aurka erre egin egiten da, zein erre egitea onartu egiten da, besteko barik.

An ibiltan garanon osasun eskubidea jagon bear da. Zelan? Erre egiteari galazoa eta legea ezarriz. Agintarien eskuetan dago azken au. Alan egin daiela. Ori izango litzake, bada, idazki onen elburua eta eskabidea.

LIBURUTEGIA

Olentzerok urte barrirako liburu mardoak ekarri deusku.

Nobela barrietaz ganera, labatik arakoa dan MELOCOTONES HELADOS. Espido Freire (erderaz) esaterako.

Aitatzekoak dira argazkigintzazko liburu pare bat, datorren udako argazki leiaketea prestatzeko beren-beregiak.

Ganera, sukaldaritza eta orren ingurukoak jorratzen dabezan liburu bitxiai ekarri doguz.

Aor azaltzen deuskue ardaok zelan aukeratu, kafeak, puruak... zelan prestatu, maaia zelan jantzi, etab. Estadistika, astrologia, mendiko meteorologia, psikologia, dekorazinoa eta medikuntza alternatiboa be dira liburu barriek jorratzen dabezan beste gai batzuk.

Dana dala, ona emen liburu gomendagarri bi, ainbat liburu interresgarriren artean aukeratzea gatx-gatxa izaten da-eta:

SEDA. Alessandro Baricco. Nobela txiki onetan maitasunezko istorio bitxia kontatzen da. Izenburuko zetearen leuntasuna irakurlearen garunean sartuko da eta istorio magiko onek arrapatuko dau irakurlea asikera asikeratik.

TXORAKIKERIAK. Kike Amonarriz eta Xabier Telleria. Liburu onetan era biko umore eskaintza egin deuskue. Batetik, Kikeren txistek eta pertsonaiak. Bestetik, Txiskola programeak sortutako nazinoarteko txiskeria, etimologiak, santutegi bereziak, etab. Izkuntzeagaz eta berbakaz olgatu egiten aukera parebakoa eskaintzen daben atal barritailleak dira.

Liburu onek Kultur Etxeko liburutegian irakurgai daukazuz. Erdi gurera!

INIAKI MARTIARTU

ERRIA BIZI-BIZI (BAKIO)

KIROL TALDEA

Bakio Kirol Taldea denboraldiaren asikera markatutako elburua lortuteko bidean dago, au da, bertoko gazteei aukerea emonda, maileari eustea.

Gaur egun, txapelketaren leenengo zatia amaituteko dagoanean, 18 puntugaz amairugarren lekuan jabilku taldea. Bost partidu irabazi eta beste iru bardindu dabez dagorduko, zortzi partidu galdu eta gero.

Zuzendaritzak, elburua lortuko dala uste arren be, ez leuke azkenean Iarrialdirik pasatu gura. Orregaitik, jokalariei aalegin apur bat anditxuagoa egiteko eskatu deutse, ze zaletuen laguntzino andirik ez ei dabe igarriko Zubiaur football zelaian.

GURASOEN ALKARTEA

Urkitzako Gurasoen Alkartea aztertzen dabil zein izan leiteken urte biko umeentzako gela abian ipinteko prozedura.

Aita-amen asmoa da, ezkuntza ordezkartzara onen inguruko eskabidea bideratzea eta udalagaz artuemonetan paratea, gai au patxadaz aztertu aal izateko.

Ikastetxeaz arduratzen dan ikuskatzaileak daborduko beraren oneritxia emon deutso proiektu oneri.

BENTA-BIZKARGAN ESPALOIAK

Bentako aparkalekutik Bizkarganera doan bidearen alboan espaloiak egingo dira eremu orretako urbanizazioari amaierera emoteko asmoz.

Era berean, obra orreek aprobetxatuz, aparkalekuko gunea apur bat anditu aal izango da.

ITSAS IBILTOKIA NOZ?

Itsas Mugarte Sailak udal oneri jakinarazo deutso itsas ibiltokia zezeilaren amaieran edo martiaren asikera inauratzeko asmoa daukala.

Orrelan, obrea bein betiko amaitzeko zerbitzuguneko lanak baino ez dira gauzatu bearko.

SARE GUZTIAK INFORMATIZATU

Udalak Bakioko sare nagusiak (ura, gasa, zuntz optikoa...) informatizatzeko bearrari oratu deutso.

Orren elburua garbia da: areen kokapen zeatza ezartea, lanak errazte aldera eta obrak burutzeko bearra bizkorrago bideratzea.

ERREPIDETIK SANTA KATALINARA

Bulego teknikoaren esanetan, errepidetik Santa Katalinara doan tartea urbanizatzeko bearre martian oratuko jake.

Orrelan, zubia bota barik, bidea anditu eta Ibarra etxearen alboan autobus geltokia egokituko da.

TOPONIMIA AZTERTZEN

Kultur eta Euskera Batzordeak aztertzen dabilz Bakioko toki izen guztiak (etxeak, mendiak, errekek, auzoak, trokak, sakostak, soloak, bideak, labarrak, baseleizak, eraikinak...) aztertu eta finkatzeko lana zelan bideratu.

Ez dago azaldu bearrak lan onen garrantzia: erriko kultur ondarea jagon eta etorkizunean egin leitekezan urbanizazioei jatorrizko izena emoteko aukerea izatea.

Izan be, badira urte gitxitan agoz aldatzen dabilzan toki izen ugari: "El Manzanal" Sagarlandaren orde "El Calero" Karabiagaren orde, "La Torre del Sol" Birjilandaren orde eta beste ainbat lekuizen.

Alan da ze, leengo eta bein izenen agozko batuketea egin bearko litzateke, ostean, informazino ori guztiori mapetan kokatu, digitalizatu, idatzi eta azkenik, izenaren forma normalizatu proposatu.

Cero, Eusko Jaurlaritzari eta Foru Aldundiari emon bearko litzakie orren barri, eurak be izen berberak erabilteko.

Lana egiteko epea, urte bikoa izan leiteke eta baserri eta etxe geienetan batu bearko litzateke informazioa.

SINISTUEZINA... BAINA EGIA

Biotzekoak jotako gabonak

Biotzaren ganeko Estatu Batuetako Alkartaren esanetan, gabonetan eriotzarik geien eragiten dauan gaixotasuna infartua da. Auxe bai, benetako 2000. urteko efektua!

Errusian galazota dago etxeko maskotak jatea

Oitura gastronomikoa? Krisi ekonomikoaren ondorioa?... Kontua da, Guennadi Selezniiov errusiako Duma-

ALBISTEAK

ko buruak etxeko maskotak jatearen aurkako legea atara barri dauala.

Arau barriak, zeatz-meatz, maskotak okelatarako edota narruak janzteko erabiltea galazoten dau.

Animalien eskubideak mesprezatu barik, non dagoz Errusiako armadak zapaltzen dauazan erritar txtxeniarren eskubideak?

Guzur errukitsuak

Linzeko (Asturia) ginekologia etxe bateko mediku laguntzaile batek bost urtean barrena faltsutu dauz gaxoek minbizia eukela azaltzen eben zitologiak. Antza ori guztiori orrelantxe egiten eban, gaixoenganako errukia zala eta.

Urtean 100.000 ildako medikuen utsak dirala eta

Washingtongo Zientzien Akademiak egindako ikerketa batek dinoan lez, medikuen errakuntzak trafiko ezbeharrek baino ildako geiago eragin dabez. Eriotza kasuen bosgarren arrazoa izan ei da au Estatu Batuetan.

Orixe, bai, aurrerapena!

Urtarrilean kaleratutako ainbat daturen arabera, 44 estatubatuarrek ez dauke ezelango aseguru medikorik.

GARUNEN INDARRA

Laboratorioko saguak palanka mekanikoa mugitzeko gauza dira pentsatze utsaz. Leenengoz, arratoiei palankeari eragin eta janaria lortzen erakutsi eutseen.

Aldi berean, giarren mugimendua kontrolatzen daben neuronon jardueria neurtzeko elektrodoak buruan ipinita.

Urrengo urratsa palankearen mugimendua elektrodoei konektatzea izan zan eta arratoiek bereala ikasi eben anak erabili barik palankeari eragiten, garunaren jardue-
ra utsaz baliatuta, au da, pentsatze utsaz eragiten eutsoen.

Zer esanik ez, ori berori gizakiei aplikatuz gero, itzelezko aalmena euki daike tetraplegiko eta antzeko gaxo-
en komunikazinoan, puntu batetik ainbat tresna kontrolatzeko... Igaz izan zan onen antzeko saiakuntza baten barri.

Ordukoan, elektrodoa eta irrati transmisore txiki bat garunean eragon eutsoezan tetraplegiko bateri eta pentsatze utsaz, "telepataiaz" zelan edo alan esateko, kablerik ez egoan eta, ordenagailuko kurtsorea zelan mugitu asi zan ikasten.

INTERNET HOME: ETORKIZUNA

Sutean bazkaria prestatzen gabilzan bitartean, beste gela baten lo dagoan umea jagoten egotea, edo bearretik urtetera goazanean, etxea bero euki daigun, berogailua biztea eta antzeko ideiak daborduko ez dira etorkizuneko ametsak.

"Cisco" konpainiak Internet Home dalakoa aurkeztu barri dau European, aukera orreekaz eta geiagogaz.

Gaur eguneko teknologia erabiliz, etorkizunekoak emoten daben etxeak eregi daitekez. Ori esaten etorri da Cisco konpainia, eta, orretarako, Londresen garatu dau prototipo moduko proiektua.

Konpainia orrek Londreseko kanpoaldean itxura arrunteko dozena bat etxebizitza eregi dauz, guztiak rou-
ten baten bitartez Internetera konektatuak eta Windows NT daukan zerbitzari batez kontrolatuak. Sistema orreri esker, etxeko ainbat sistema (alarmak, kamerak, berogailuak, eta abar) kanpotik kontrolatu daikeguz nabigatzaile normal baten bitartez.

Jakina, etxe kanpotik ez eze, etxe barrutik be kontrolatu aal doguz, eta, orretarako, etxeko gela bakotxean orde-
nagailu bat ipini dabe.

Etxearen kontrola egiteko software berezia garatu dabe energiaren erabilerea obeto kontrolatu aal izateko.

Eta, era berean, gela guztietako tenperatura, argiztapenaren mailea, alarma, etxean iminitako kamerak eta lorategiko ureztatzea be kontrolatu aal izango doguz.

Software ori, ganera, itxuraz aldatu daiteke, gura dan etxeko geleagaz bear egin daian.

Londresen egin dabezan etxetxu orreek 125 milioitan saltzeko asmoa dauke.

Dana dala inork bere etxea orrelan kontrolatu gura badau, ona prezioak: etxea egiten dabilzan artean, kla-
beak ipinteak 1.250.000 pta. inguruko balioa euki daike eta sarean ipinten diran ekipoak 5.000.000 pta. inguru. (Argibide geiago: www.cisco.com) Josu Valinok Egin eta Elhuyar aldizkarian ataratako idazkia.

ZIDURI

=<=> =<=> =<=>

GABAZ PARKE BATEAN

(3n. SARIA)

Andre zartzua jarri zan parkeko aulki baztar batean, antzinako eskuko sakua irmo ta estu garriaren kontra iminiz. Iluntzen ari zan bein onezkero, baiña ba eban astirik etxera itzultzeko, urbil bizi zan, udabarriko aizea gozo ta epel ebilearik... Bere ondoan, ordea, jende asko bakoitza bere etxeetara joian: langileak, parkeko bidea bide-labur'lez erabiltzen ebenak, eskola-ume eta ikasleak, maitale bikoteak, andre zartzuak ametsetan'lez begiratzuten eutseen.

Bakarrik ete egoan orain parkean? Eta zenbat denborarako? Baiña ez, gizon gazte bat atzetik etorren jaztsu. Bere aurretik pasatzean geratu eta begitu egin eutson zalantzas beterik, zelati; andik apur batera bere ondoan jarri zan.

Andre zartsuari ez eutson grazi larregirik egin, bere ondoan jarri bear izateak, baiña aulkia guztiena zan ta! Mutillak zigarrotxo bat piztu gura izan eban, eta andrea eskuak dardarka eukozala konturatu zan, mintzo bi erabili bear izan ebazan lenengo ta bein.

Andretxua egoerak barretxo bat egitera beartu eban, eta mutillak aitzakitatzat artu eban irri soil ori beragaz berbetan asteko.

– Gauaro ederra, ezta?

– Bai, gauaro ederra, baiña beste gauaro batzuk ezagutu izan dodaz, au baiño ederragoak- gaineratu eban andratxoak, aspertuta antzean.

Gizon gazteak arretaz begiratu eutson eta andreak bae-kian pentsatzen ebilela: "Atso tuntun berbaldun bat, dudarik barik"...

Andre zarrak emoten eutson erantzun otzaren mendekuz, edo obeto esanda, gaztakeri utsez, andik apur batera galdetu eutson:

– Ez zara beldur, andrea, zulako pertsona bat, eta leku onetan?

– Zergaitik izan bear dot beldur ba?

– Zergaitik? Ba emen gertatu izan diran erailketengaitik.

Ene! Zertarako oroitarazi eutsozan mutilak gau onetantxe ain zuzen, parke onetan gertatutakoak: eskolako neska bat, gero berrogeiren bat urtetako etxeko andre bat, eta azkenengoz neskatila bat, irurak erailak, zintzurra ebakita, eta erailea ondiño aske ebilela!

– Ez, ez naiz beldur- erantzun eban uzkur.

Gizon gazte ori gero eta gogaikarriago iruditzen jakon. Eta orduan pentsatzen asi zan, gizona, naita jesarri jakola ondoan, dirua lapurtzekotan edo. Eskuko sakua garriaren kontra estutu eban. Baiña gizon gazteak, bere mogimendua ezikusia egiñik, zera esan eutson:

– Aspaldi gertatu ziran erailketa oiek. Egilea bein onezkero antzemango eben. Ez naiz beldur.

– Ez da ain aspaldiko gertaera; azkena, ez al zara gogoratzen neskatila gazte arena?... Joan zan udabarrian izan zan-eta.

Oroitzen zan, bai, andrea. Ez eban beldur izan bearrik, ez mutil orren, ez beste inoren beldurrik. Eta nontzebarrikeri ergel batek bultzaturik galdetu eutson:

– Zure ustez, nor zan egilea?

– O! Dudarik barik sadikoren bat- erantzun eban lasai.

– Bai, arrazoi dozu, iru neska illik, dudarik barik agure sadikoren batek erailak.

– E! Ez ain arin ibilli zure arrazonamenduetan- esan eban mutilak irriz. -Nire ustez, erailea gaztea da, eta ez agure bat.

– Ez, ez- erantzun eutson, leunki baiña zoli, orretaz segurtatu gurean dabilela erakutsiaz, gaua gainean eukelako eta biok bakarrik egozalako parkean. Agure batek bakarrik ezin ditu iru neska gazte eta eder erail!

– Bai eta gizon gazte batek be. Gogoan izan ez dautso-la lebarik ildakoen adinari, irurotatik bat ume bat zan, beste bat adin ertaineko andra bat... pentsa leike emakume guztienganako gorrotoa daukola... Zergatik? Euren amodioa edo maitasuna ezin ebalako irabazi? Bearbada ederrak ziralako. Batek daki. Begira nire egoera: maingua naz (andrea ez zan konturatu maingua zanik, ordurarte); gauza gitxi da asko, alatan be oztopo itzelak emakume baten konortea kendu gura banekio -esan eban irri idor bategaz, eta gero...- Bai ba, gizeraile sadiko izatekotan indartsua eta giartsua izan bear da. "Egia da -pentsatzen eban andreak-; gutariko bakoitzak ba ditu mila ta milaka arrazoi gaiztagin sadiko bat biurtzeko". Zearo azturik eukozan mutil gazteak sorrarazi eutsozan duda edo zalantzak, eta une artan andreari urbildu eta eskuko zakua indarka kendu gura izan eutsonean, ustekabearen ustekabez orro bat atara jakon. Ez eukon beldurrik, eta ez eban zakua inondik inora soltzatzen, adoretzu eusten eban.

-Atsoa, emon eustana zakua bereala! -agindu eutson bortitz mutil gazteak, eta zintzurra biurtu gura izan eutson. Molda barik, ordea, eraile faltsu baten modura, pentsatu eban, andreak. Nok jakin etsipenez zer egiteko prest egoan? Negar sotinka eskatu eutson- utzi nagizu, arren, neure dirua emongo dautsut, bai!

– Atoan baina, atsoa, bestela... -gaineratu eban gizonak, lepoa lasatzen eutson einean.

Andre zarrak zakua zabaldu eban, eskuak sartu, billa asi... Baina mutilaren arridurarako atsoak labana atera eban, orregaz batera mutilak oiuegin eban, zintzarria ebakita eukola ta odola dariola, bertan il zan. Atso arrunt

batek baino trebezi geiago erakutsiz, orain arte sarri egina balegoke lez, atsoak zera esan eutson: Ez zinan zu gaur bilatzen neban biktima, baina jausi zara nire sareetara, ez da ala?

Besteak, ordea, ez eban astirik izan berba oriek entzuteko, zerraldo egoalako parkeko aulki gainean, begitartea jadaneko urdinduta eta miia aotik erdi atarata.

Andrea laister segurtatu zan gizon gaztea illik zala belarria beran bularraren kontra eroanaz. Illa zan, bai, eta

beragaz batera betiko itzali ziran gaztetasuna eta edertasuna.

Ez zan egia maingua zanik, eta aurpegi ederra eukon, bizi zanean!

Barrero be itzuli zan andrea bere bakartasunez beteriko bizitzara, besteen atsegin eta bizi naira...

Urrengo udabarrirarte, beintzat. Bere etxera itzuli zan, eta iñok be ez eban bidean antzeman.

LEGARRETA'tar ASIER

BERTSOAK

MAITASUN BAKARRA (IRUDIPENA)

Doñua: Ikusten dezu goizean.

I

Eguzkiaren irtera
egunarekin batera
eldu da gure atara.
Gozaldu eta berealaxe
noa lanean astera:
arresi zarren ostera
toki batetik bestera
ogia irabaztera.

II

Eguna igaro danean
eten gabeko lanean
ni aurkitzen naiz kalean.
Lantegi dana geldirik dago
ixilik bakartadean;
illuna datorrenean
etxera pozez bidean
pentsatzen atsedenean.

III

Eguna utzirik atzean
etxe barnera sartzean
Amarekin aurkitzean.
Afari on bat prest izaten det
maira inguratzean;
ta, biok exeritzean
elkarri begiratzean
zer poztasun biotzean!

IV

Beti ari zait galdetzen
nere barnea aztertzen
ba-du zerbaitek kezkatzen.
Berak nai luke ni ikustea
neska on bat aukeratzan;
eleiza bidez ezkontzen
oiñordeko bat jaiotzen
sendia berriz loratzen.

V

Ez du merezi asterik
gutxio buru austerik
oraindik nago gazterik.
Ama maitea zuk ez dezu nai
ni mutil-zar ikusterik;
zu baiño andre oberik
ez da munduan besterik
ez det bear emazterik!

VI

Nik daukadan ondasuna
aspalditik dakizuna
zukanako maitasuna.
Ama zu zera mundu ontara
ni ekarri ninduzuna;
betiko laguntasuna
bizitzako poztasuna
nere zorientasuna

VII

Gazterik ziñen andretu
mutil on bat aukeratu
bera betiko maitatu.
Ezbear batek zure senarra
egin zuan lurperatu;
alargun ziñan geratu
ni umezurtz munduratu
ez nun Aitik ezagutu!

VIII

Berari begiratzean
zarra da-la oroitzean
miñ artzen det biotzean.
Zer izango da nere bizitza
Ama laztana iltzean?
Maite nuana galtzean?
Bakartadea sortzean?
Bakarrik etxe utsean?

IX

Ementxe ainbat urtean
bizirik zauden artean
beti gu biok batean.
Nere poza da zu ikustea
gure etxeko atean;
zure muxoa artzean
nik lanera irtetzean
naiz gaubean itzultzean.

X

Ama gu bion arteko
gauzak ondo joateko
zugaz batera ilteko,
Jainko onari eskatzen diot
nere deia entzuteko;
ni bakarrik ez uzteko
zurekin eramateko
grazi auxe emateko.

IPARKALE

==> >== >==

EUSKALERRIA EDESTI GIOIA (VIII)

NAPARRO ETA FRANTZIA'KO ERREINOA

SANTXO VII INDARTSUA (ETA CHAMPAGNE'KO ETXEA)

Santxo, onderengo gabe il zan eta Naparro-errei-narako bere illoba Teobaldo, frantziar Champagne-etxekoa, aukeratu zuten (1234-1253) eta aren ondoren Teobaldo II (1253-1279), Enrike I (1270-1274), Juana I (1274-1305). Juana seme-alabarik gabe il zanean, Naparroa' ko Korteak, ordezkokoak bialdu zituzten Frantzia'ra beste errege baten billa.

FRANTZIA'KO ETXEA

Luis I aukeratu zuten Frantzia-etxekoa (1305-1316); eta ondoren Felipe II (1316-1332). Onen garaian Carlos I eta Juana II (1328-1349) Iruña'ko katedralean koroiatu zituzten Naparroa'ko Errege Erregiña, baña aurra izatean il zan, ondoren auen seme Carlos II, Evreux-etxekoa aukeratu zuten (1349-1387) eta Juana de Valois, Frantzia-erregearen arrebarekin ezkontzen da. Eta Frantzia'ko erregiña izan nai du. Ingalaterra'ren laguntzarekin gerra egiten dio Frantzia'ri eta ingelesak Naparroa'n agertzen dira. Ori naikoa ez dala, naparrak Albania artzen dute beuren mende eta Grezia, kruzaden aitzakiakin. Erregiña iltzen da eta bereala Erregea. Aien ondoren Carlos 111, Noblia, (1387-1425) Naparroa'ko Errege eta Evreux'ko Kondea (gero Nemours'ko kondea izango dana, aldaketa batengatik). Paris'era doa Leonor erregiña Naparroa'n utzita... Alaba Blanca Don Juan Aragoi'koarekin ezkontzen da, eta Carlos aurra jaiotzen da, Carlos III'garrenaren billoba eta orrela ematen dio bere asiera.

ARAGOI'KO ETXEARI

Carlos, Viana'ko Printzea, aukeratzen dute Naparroa'ko Korteak erregerako eta orduan, Blanca bere amak egiten du Erregiña'ren lana. (1425-1441) Blanca iltzean, orduan, izango da errege bere Juan II Aragoi'koa (1441-1479), naiz eta erregiñak

aulkia bere seme Carlos Viana'ko Printzeari laga. Au zan benetako erregea eta bere aitari soka luzeegia laga zion eta aizkenik, burruka sortu zan bien artean. Carlos printzeak Naparroa laga eta kanpora joan zan bere ordezkoko D. Juan de Beaumont Kanzillerra utzita.

Juan II'garrenak, Estella'n, Agramonte'en Korteak biltzen ditu eta berdin egiten du Beaumont jaunak, Iruña'n. Estella'koak D. Juan aukeratzen dute errege eta Iruña'koak Viana'ko Printzea Carlos IV izenarekin. Paris'tik Sicilia'ra baztertuta zegoen Carlos... Mallorca'raiño etorri zan eta aitaren erregeuz Barzelona'ra iritxi zan eta aitak Kartzelan sartu. Barzelona'n il zan eta susmoak badira aitak pozoitu zuala semea.

Bere ordezkoko Erreinoan izendatu zuan Don Juan'ek bere alaba txikiena Leonor de Foix, Viana'ko Printzearen ordezkoko. Leonor ezkontuta zegoen Gastón de Foix'erekin eta biok artu zuten Viana'ko Printze-izena. Carlos'ena zana, onen Blanca, beste arreba, Orthez'en preso zegoela, il zanean 1464' an.

Leonor gelditu zan erregiñarenak egiten Carlos Viana'koaren lekuan, Don Juan bere aitaren aginduz. Aren seme Gaston de Foix, Gaston'en semea, Magdalena de Valois'erekin seme nagusia izan zuen Francisco izena zuena; eta El Febo (Eguzkia) gaitzizena, bere edertasunagaitik. Bi Gaston du Foix dabilta emen tartean: bat aita eta bestea semea.

Gaston du Foix, semea, Bearne'an baztertuta eta noiz errege izango zai aspertuta, Naparroa'n sartzen da gudari frantzesekin eta Naparroa'ko zati aundi bat bereganatzen du. D. Juan, Erregea, bere alaba eta Gaston'en ama, Leonor'ekin alkartzten da Olite'n, Leonor'ek eramaten bait zuen Erregearen ordezkotasuna Naparroa'n.

Lerin'go kondeak (Beaumont) ez du onartzen aita-alabak Olite'n egiñiko ituna. Leonor'ek, Gaston'en amak, Iruña artu nai du... Anai arteko gerra (Beaumont-Agramont) sortuta dago, Leonor eta Lerin'go kondearen anean...

Gaston du Foix, Leonor'en senarra eta beste Gaston du Foix'en aita, il da eta emaztea Leonor uzten du bi seme-alabarekin, Francisco du Foix, El Febro,

EDESTIA

eta Catalina du Foix, Don Juan, Leonor'en aita ere iltzen da; baita Gastón gaztea ere, Leonor'en semea eta Magdalena de Valois'en senarra, 26 urterekin (1469-11-22) eta ama Leonor'ek artzen du Naparroa'ko Erreinoaren aulkia.

FOIX'EKO ETXEA

Leonor du Foix, Gaston'en emaztea eta beste Gaston'en ama izango da Naparroa'ko Erregiña 1479 urterarte. Bere ondoren aren illoba Francisco du Foix, El Febo, errege (1479-1483). Foix'tarrak (Pedro Elizaren kardenal eta bere anaiak) alegintzen dira Naparroa'ko anai-burruka baretzen, baña alperrik. Ori ikusita Erregeak, bere Korteak, Pau'ra (Bearne) eramaten du eta amasei urtekin il zan Pau'en. Anaiaren ordez, arreba erregiña, Catalina du Foix (1483-1517). Anai-arteko gerra aurrera doa...

Catalina du Foix, erregiña, Juan de Albret'ekin ezkontzen da. Naparroa'ko errege berria Sevilla'ra dioa Fernando "Catolico" a ikustera. Fernando eta Isabel, bere lengusiña, ezkontzen dira alkarrekin eta bat egiten dituzte Kastilla (Isabel) eta Aragoi (Fernando)... Jarraitzen du anai arteko burruka Naparroa'n eta Erregeak Lerin'go Kondearen lurraldeak arrapatzen ditu. Eta orrekin pakea sortzen da Naparroa'n. Ez luzaroko.

Kastilla'k Frantzia'ri gerra dala bien artean jakin-erazten dio eta aitzaki orrekin, Naparro'tik bidea eskatzen du Frantzia'ra. Ingalaterra'ko ontziak, Naparroa'ren alde, Pasai'ra etorrita daude. Kastilla'k Naparroa'ri bide zabala eskatu bakarrik ez, artu egiten du bidea Naparroa'n zear: Uztaillaren 21, urtea 1512. Naparroa Kastilla'ren mende Lerin'go Kondearen laguntzaz.

Aurretik gauzak onela zeuden:

Leon eta Kastillan, Isabel I / Aragoi'en, Fernando II.

Naparroa'n, Catalina du Foix eta Juan de Albret.

Fernando II eta Isabel I, alkarren lengusu-lengusiña ziran; alaz ere, alkarrekin ezkondu ziran eta orretarako Aita Santuaren baimena bear zuten. Erroma'ko agiri ori, Fernando eta bere aitak asmatutakoa dala, esaten dute zenbaitzuk.

Lerin'go Kondeak, Luis de Beaumont jaunak, eskeiñi zion bere laguntza Fernando'ri. Onek zuen Beaumont'ek Frantzia'ren aldekoa izango zala, eta zearo puztu zan orrelako eskeintzak: aren uri esituak lagun izango zuelako.

1492'an bukatu zuten moroen kontrako burruka, Granada artzean eta andik 20 urtera sartzen dira indarrez Naparroa'n Duke de Alba aintzindari zala. Juan de Albret eta Catalina du Foix. Kastilla'ko ikurriña Iruña'ko arresietatik zintzilik dago. Banan banan erri guztiak erortzen dira Kastilla'ren menpean. Eta bere eskuetan agertzen da "Pastoralis Ille Coelestis" Aita Santuaren Bula agiria; Istoriagillerik ez da falta esango duenik, Fernando berak asmatutako Bula dala.

Fernando'k Iruña'ko Korteak beartzen ditu, bera Naparroa'ko errege bezela artzen. Bederatzi urte beranduago, Pirenee-bidetik gudaroste bat sartzen da Naparroa'n Foix, Bearne eta naparrak osatuta. Erri-rik erri Iruñe'ra datoz eta erriak beso-zabalik artzen ditu. Bertan gelditu bearrean, frantzesek aurrera jo nai dute Kastilla'ra, Los Comuneros'en iraultza bat lertu dalako.

Comuneros'en arazoa nundik sortu zan:

Isabel I il zanean, Fernando'k erregetza bere alaba Juana, La Loca, Austria Etxeko Felipe I, El Hermoso'rekin ezkondu zegoenari emon eutson. Andik urte gutxitara, 1506'ean, il zan Felipe eta Fernando berriro erregetzara biurtu zan. Felipe eta Juana'ren semea zan Carlos I eta au eseriko da errege-aulkian (1517-1556); eta bi urte geroago ilko da Yuste'ko Monastegian (1558).

Umetatik Flandes'en bizia, andik ekarri zitun bere lagunak, erderaz ez zekitenak, kargu guztientzako eta Korteak osatzeko... Arrazoi aukeratu eta beste batzuek sortu-arazi zuten Los Comuneros'en iraultza Kastilla, Leon eta beste alde batzuetan. Gertaera aukeratu eta Naparro'ko askatasunaren gudarostea, batera datoz. Eta frantzes buruzagiak, Iruña eta beste artutako errietan senda sustartu gabe, naiago du aurrera jotzea Kastilla'ra Los Comuneros'en iraultzari esku bat ematera. Logroño artu nai dute aurrera baño lenen; baña uste baño indar aundiago aurkitu zuten aurka. Iraultzaille Komuneroak menperatuak izan ziran eta Padilla, Bravo eta Maldonado buruzagiak eriotzara emanak... Eta, ondoren, frantzes-naparrak zapalduak Noain'en; gudoreste askatzaille onen buruzagia Andrés du Foix, Señor de Caparrós, izan zan; gaztea, ausarta baña esperientzirik gabea.

Ies egin zuten Frantzia'ra, baña Amayur'en 200 gizaseme napar Agramonte'koak utzi zituzten Kastilla'ren erasoai aurpegi emateko; danak il arte eutsi zioten erriari; eta Kastilla'k oiñarrietaraiño txikitu zuen Amayur eta arrezkero da napar askatasunaren ikurriña.

Karlos I, Enperadorea, Iruña'n sartu zan 1523'ren Urrillan.

BENABARRA ETA FRANTZIA'KO ERREINOA

NAPARROA'REN MENDI-OSTEKO SEIGARRREN MERINDADEA

Benabarra zan Naparroa'ren Seigarren Merinda-dea eta ara bildu ziran Catalina du Foix eta bere senarra Juan de Albret, Naparroa'ko errege-erregi-ñak. Duke de Alba, Kastillako erasoaren buruzagia, alegin batzuek egin ondoren Benabarra menperatzeko, gauza eskasa eta gaitza zala ikustean, bertan beera utzi zuan ekintza ori.

Juan Albret il zanean, bere seme Enrike de Albret II eseri zan Benaparroa'ko errege-aulkian (1517-1555), eta Naparroa osoko Errege izendatzen da. Lege-biltzarra antolatzen du, Diru-etxea Saint-Palais'en ereikitzen du eta Margarita de Angulema'rekin ezkontzen da. Bere ondorengo izango da Juana III de Albret (1555-1572), Antonio de Borbon'ekin ezkondua. Felipe II'garrenaren aurkako gorrotoak eramane zuan bere burua protestante-hugonote aitortzera. Aita Lizarraga'ri agindu zion Biblia euskerara biurtzeko. Eliza katoliko eta bere elizkizunak apurtzen ditu. Beeko Naparroaren erregiñak Felipe II'garrenari Goiko Naparroa eskatzen dio ausardiz eta ez du ezertxo ere lortzen. Orduan aldarrikatzen du Protestante biurtu dala. Eta bera izango da aurrerantzean, Frantzia'ko Protestanteen eutsigarrik sendoena.

Bere senarra il zanetik aun-era, ez zuen beste lanik izan katolikoak zapaltzea baiño eta euskaldunetan anaiarteko guda eta ermitak birrinduta, errietan apai-zen ordez Protestante hugonote ministroak ezartzen ditu... Baña, alaz ere, Benabarra katoliko izaten jarraitu zuen. Eta Erregiña'ren gorrotoa eriotzak itzaldu zuen 1572'an.

BORBON'AK ERREGE

Juana III erregiñaren ondoren bere semea dator, Enrike Borbon eta Albret (1572-1610): Naparroa'ko Enrike III eta Frantzia'ko Enrike IV.

Erligio katolikoa berriztatzen du eta Margarita de Valois egiten du bere emazte. Valois'tarren aizken frutua. Enrike III de Valois Frantzia'ko erregea erailtzen du Pralle Dominikar batek eta aren ordez dator, Enrike III, Naparroa'ko erregea, Margarita de Valois'en senarra, Enrike IV tituloakin. Orregaitik da Naparroa'ko Enrike III eta Frantzia'ko Enrike IV.

Errege napar onekin (Enrike Borbon eta Albret) sartzen dira Frantzia'ko erregetzan Borbon'darrak; gobernuan 1830' arte iraun zuten denbora guzian, Frantzia'ko Iraultza eta Napoleon'en Inperio ez ezik.

Frantzia'ko errege-aulkira igo zan 1584'an.

Pau'en jaio eta Protestante ezi zuan bere amak. 1593'garren urtean katoliko biurtu zan, eta ondoren, 1594, egin zuen bere san-era garaitsua Paris'en. (Berak esan ornen zuan au: `Paris'ek ondo merezi du meza bat').

Errege naparra Frantzia'ko Errege izatean, orduan, Naparroa'ko Erreinoa (Benabarra) bat egiten du Frantzia'koarekin Naparroa'ko Enrike III eta Frantzia'ko Enrike IV Erregearen persona bakarrean. Errege bakar onek, bere amak bezela, Felipe II bigarrenari Goinaparroa'ren erreinoa ertsiki eskatzen dio.

Pireneetako erreino txiki au da Enrike III-IV'rentzat gauzarik aundiena, Iruña'ko erreino txiki oneri itsatsita daude Foix, Armagnan, Comminges, Bigorre eta Maule'ko kondadoak; Limoges, Marsan, Nebouzan, Lautrac, Geraudan'go bizkondadoak eta azkenik Albret eta Bearne'ko estaduak.

Apirillaren 13'an, 1590, ez du nai iñolaz ere Naparroa'ko erreinua Frantzia'rekin bat egiterik... Baña Paris'eko Parlamentuak erabaki au artzen du: Erregearen lur-aldeak eta Frantzia'renak bat egin bear dute, erregea ez bait da persona partikular bat, laterriaren Errege baizik.

Alaz ere, berak Naparroa'ko Lege-biltzarra eta beste arazo bereziak gordetzen ditu eta agindu bat ematen du Uztailean, 1607, (bere 1590'ko asmoak agertuz) esanaz Naparroa erreinu berezia dala eta Frantzia'tik alde, nere buruan bakarrik uztartzen dana Frantzia'rekin!

Margarita de Valois ukatu eta Maria de Medicis'erekin ezkontzen da eta onek semea ematen dio ondorengo. 1610 urtean erailtzen dute eta bere emazte Maria de Medicis'en semea izango da ondorengo errege-aulkirako.

EDESTIA

LUIS II NAPARRO'RAKO ETA XII FRANTZI'RAKO (1610-1643)

Bi erregetzak bereizita artzen ditu; baña, 1620'ean, Urrian, bere gudariekin sartzen da Bearne'n, eta il orren 20'an indarrez Naparroa'ko Erreinoa eta Bearne, Donezan eta Andorra, bat egiten ditu danen Lege-biltzarra Pau errian ipiñiaz: ("Naparroa'ko Fuero eta beste libertade guztiak kendu barik; oiek nik gordeko ditudaz betirako").

Benabarra'k protesta bizia egiten du eta lau urtez agindua atzeratzea iristen du, Cardenal Richelieu agintari egite duten arte 1624'an. Benabarre eta Bearne'ko Agintaritzak bateratzen ditu, Pau errian izango dan `Naparroa'ko Parlamento' batean. Atan be euren Lege-biltzarra, Kortez'en ordezkoa, gordezten dute. Beti bezela Naparroa'n erregeak Fueroa onartu bear dute eta Fueroaren neurrian bere agintaritzak makurtu.

"Orregaitik, emendik aurrera ere bai, naiz-eta bi koroiak bat egin, beti aitortu bearko dute Benabarra, ez da Frantzia'ren erantsi bat, baizik eta Erreino berezia; orregaitik beuren izena izango da Frantzia eta Naparroa'ko Erregeak".

Luis, Naparroa'ko II eta Frantzia'ko XIII bederatzirekin egin zuten errege eta bere ama Maria de Medicis'en ardurapean egon zan... Bi koroiak bat egin zutenean, 1624, Kardenal Richelieu, Armando Juan du Plessis'en eskuetan utzi zuan erregetza. 1642'an iltzen da Kardenala, eta ondorengo 1643'an Erregea. Onen lekua artuko du bost urteko aurrak:

LUIS III NAPARROA'KO, ETA **XIV** **FRANTZIA'KO** (1643-1715)

Maria de Medicis, Erregearen aman gogoratu zioten naparrek Errege gazteak Benabarra'ra etorri bear zuela Fuero eta askatasun guziak berriztatzea ziñ egiñez. Alaxen etorri zan, 17 urte geroago, 22 urte zituela Donibane Loitzunera eta an ezkondu zan España'ko Erregearen alaba eta Carlos II'en arreba, Maria Teresa'rekin. Enrike eta Maria Teresa bikote onen biloba izango da Felipe V, España'ko Erregea. Izendatze au dala medio sortu zan guda "Guerra de Sucesión" deritzana. Guda amaitu zan Utrech'eko Itunaren bidez. Itun orrek itxi zizkien Ego-Euskalerrri'ko arrantzaleei Kanada eta Terranova'rako bideak.

Erregeari gogoratu zioten berriro etorri bear zuela Benaparroa'ra Fuero eta Askatasunak ziñatzera; Doniane Doitzun'era eldu eta an ziñatu zitun; baña, Benaparroa'ra ez zan agertu. Alaz ere, Benaparroa'ko erreinoa beste Frantzia'ko probintzietatik bereizten du. Bere ondoren etorri zan erregetzarako:

LUIS, NAPARROA'KO **IV** ETA FRANTZIA'KO **XV'GARRENA (1715-1774)**

Ume txikia zan eta aurreko Erregearen biloba eta bere adiñera etorri arte (1715-1723) ordezkoen eskuetan egon zan Erreinoa eta bear ez diran aundikerietan eraman zuten aurrera. Ori eta guda nekegarriak bitartean direla, porrot egin zuen Erri-diruak. Oker oiek zuzendu naiean, erriari izugarritzko zergak eta petxak ipiñi zioten bizkarrean. Bera, berriz, jostallu bat gertatu zan Pompadour Markesaren eskuetan. Eta, au ilda gero, okerrago oraindik Du Barry'ren Kondesarekin.

Naparrek eskatu zioten Fueroa ziñatzera etortzeko; baña, ez dakigu juan zan ala ez... Bere eriotzean, ondorengoai utzi zion egoera eutsi-eziña eta Erregeak eta Aundikiak gorroto zituen erri arlote bat.

LUIS **V** NAPARROA'KO ETA **XVI ERAN-** **TZIA'KO (1774-1792)**

Okerretik okerra, malkorretik malkorrera, zijoan Laterriaren gurdia. Ibillera ori zuzendu naiean, Rechelieu'ren garaitik, (1624) itxita zegoen Legebiltzarra irikitzen du. Iru Malla daude beregan: 1) Apaiztegia, 2) Nobliak, aundikiak eta 3) Erria... 200 ordezkoko aukeratu zituzten eta Versailles'en bildu ziran Maiatzaren 5'ean, urtea 1789.

Billera ori izan zan Frantzia'ko Iraultza Nagusiaren azia. Lege-biltzarrek zoramen bero gartsua sortu zuan errian, Naparroa'n ez ezik, oituak bait zeuden Lege-biltzarra izaten eta askatasunean bizitzen. Orregaitik naparrek, asiera asieratik, uko egin zioten Lege-biltzar orreri eta ez zuten euren ordezkorik bertara bialtzerik; Naparroa'ko Erreinoa Frantzia'ko Erreinetik bereziki bizi bait zan.

Naparrak zirela eta ez zirela, makiña bat eztabaida izan da gero, Urrillaren 8'an, urte orretan bertan 1789, bost illebete eta bost egun Lege-biltzarra sortu zuen egunetik, erabaki au artzen dute: emendik aurrera "Frantzia eta Naparroa'ko Erregea" izenaren

ordez, "Frantzes guztien Erregea" esango da eta kito. Naparren protestari kasorik egin gabe, frantzes guztiek onartu zuten erabaki ori.

Urte orren Azaroaren 11'an, Frantzi osoa Departamentuetan erdibitzen dute; guztiak berdiñak. Laburdi, Benaparroa, Zuberoa eta Bearne Departamentu bakar batean bilduko dira: Be-Pirenetako Departamentuan. Eta orrela dirau gaurko egunerarte. Naparrek asarre bizian protestaka ekin arren, urrego urtearen (1790) Martzoaren 4'an biltzen da Be-Pirenetako Lege-biltzarra eta Naparroa'koa ez da geiago bilduko.

Une onetan iltzen dute, orain arte bizirik iraun duen, Naparroa'ko Erreinoa. Kastilla'k lortu ez zuena, Frantzia'k lortu.

Frantzia'ko iraultzailleak ez ziran asetu Naparroa'aren eriotza politikoarekin, eta eraso negargarri odoltsua asten dute euskaldun guzien aurka: errien izenak aldatu, elizak erre, apaizak eta prailleak aurretik eraman eriotzararte eta erri osoak euren etxetik atzerrira bota...

Iraultza igaro zan, Inperioa ere bai, lengo era zaarra berritu zan... Baña, ilda zegoen Naparroa'ko Fueroa, ori ez zan berritu; ori ez zan bizitu... Ilda datza oraindik ere. Betirako ote?

Fernando, Kastilla'ko Erregeak, Cisneros eta Alba'ko Dukea lagun, Naparroa menperatu zuten; baña, Seigarren Merindadea, Benabarra, aske gelditu zan eta an iraun zuan Naparroa'ko Erreinoa Frantzia'ko iraultzailleak il zuten arte. Alba'ko Dukea an izan arren bere gudarostearekin, alde egin zuen artatik defenditzen zailla zalako. Zailtasun orreri esker, lortu zuten askatasuna. Ara bazartu ziran Naparroa'ko Errege Erregiña eta errege-familiekin izan zuten ar-emaneri esker, Frantzia'ko errege izatera eldu ziran. Orregaitik Frantzia'ko Erregeak, Naparroa'koak ere baziran. Baña, Iraultza Frantsezak desegin zuen Naparroa'ko Erreinoa, Frantzia'ko Departamentu baten zati bihurturik.

Urte batzuek geroago Iraultza orrek, Cadiz'eko Konstituzioa'ren bidez, España osoaren lurraldeak Probintzi izendatuko dituzte, guztiak berdiñak, lurraldetako Fuero guztiak, Araba, Gipuzkoa, Bizkaia, Naparroa eta besteak, deseginda gero.

GARAI-NAFARROA

Goazen orain Bee-Naparroa'tik Garai-Naparroa'ra. Bat Beekoa ba'da, bestea Garai'koa izango

da. Kastilla'ren Fernando'k, Alba eta Cisneros lagun, arrapatu zuen Garai-Naparroa, Beekorik gabe. Urtea 1512.

Iru urtez beranduagoa Burgos'en Lege-biltzarrak erabakitzen du Naparroa Kastilla'rena dala eta berekin bat egiten dula. Urtea 1515. Alaz ere, Fernando II'ak Naparroa'ko Fuero eta Libertadeak ziñatzen ditu eta Errege ordezkioak izendatzen ditu eta orrela Naparroa'k ez du Erreino izenik galtzen.

Ordurako, 1504'an, Fernando'k bere erreinoa Juana La Loca eta aren senar Felipe El Hermoso'en eskuetan uzten du. Auen seme eta Fernando'ren billoba izango da Carlos I.

Suiñaren eriotzean, Felipe'renean, Fernando II dator berriro errege aulkira. Isabel emazte iltzean, Foix'eko Kondesarekin ezkonduko da. Kastilla'ko Koroiaikin Naparroa bat eginda bigarren urtean, ilko da bera ere.

Bere ondoren, billoba Carlos I, Juana eta Felipe'ren semea, izango da Kastilla'ren Errege eta asiera emango dio Austria'ko Etxeari, austriarra bait zan Felipe bere aita.

CARLOS I (ESPAÑA'KO), V (ALEMANIA'KO) ETA IV (NAPARROA'KO) 1517-1556

1556'ean bere errege-aulkia utziko du eta andiki bi urteetara, 1558, Yuste'ko Monastegira baztertuko du bere burua.

Aurretik, Ekainaren 13'an, urtea 1542, Iruña'ra etorri eta arresiei begiratu bat emanda eta eurak sendotzeko agintzen du. Urte baten ondoren agindu au ematen du zeatz: "Ez dedilla arri-esi inguru guztian iñungo etxerik, ez sororik, ez arbolarik".

Felipe II, Carlos I'ren semeari, eskatzen diote naparrek etortzeko Iruña'ra Fuero eta Libertadeak ziñatzera, bera izango bait da ondorengo erregea. Dagonillaren 20'ean, urtea 1551, etorri zan. Ziurtasunik nai zituzten Naparroa'n Fueros'en inguruan Naparro eta Kastilla'ko koroiaikin Erregearen buruan bat egitean... Baietz, berak zainduko zitula Fuero eta Libertadeak; zaindu eta ondu... Eta berriro etorriko zala errege izandaten zutenean.

Carlos I, 1554'an bere testamentua egitean, barruko kezkek agertzen ditu, bere aitaitak egin zuezagaitik Naparroa indarrez artzean eta injustiziarik ba'lego ekintza orretan, emateko askatasuna Naparroa'ko Erreinoari. Flandes'etik etorritako laguntzailleak erreino txiki orreri askatasuna emateari

EDESTIA

baiezkoa esan zuten; baña, kastillarrek ezetz iñundik ere.

FELIPE II (ESPAÑIA'KO) IV (NAPARROA'KO) 1556-1598

Iruña'ra etorri eta Ciudadelari begiratu bat eman eta urrengo egunean Katedralean Fueroak eta Libertadeak ziñeztu. Aitzaki orrekin Naparroa'ko dantzari-talde guztiak dantzan egin zuten. Aien ondoren zezen-korrida bat prestatuta zeukaten 27 zezenekin; baña, Erregeak naiago zituen zaldun-torneoak eta 48 lagunek egin zuten bata bestearen aurkako burrukak.

Ingalaterra artzea zeukan buruan, Isabel I'earenganako gogo txarrez eta 130 gerra-ontzi aukeratu zitun ekintza orretarako. Aietatik asko bale-ontziak; baña, ekaitzak artu eta 60 ontzi ondoratu zitun; ontziak eta gizonak. Ori dala ta bale-arrantzak atzeraka aundia egin zuen ontziekin batera gizonak ere galdu ziralako.

Carlos I bere aitak izan zituen barruko kezkak Naparroa'ri buruz, bere barruan sortu ziran zartzaroen eta buruauste ori garbitzeko lanak bere seme Felipe II'ari utzi zizkion.

FELIPE III (ESPAÑIA'KO) ETA V (NAPARROA'KO) 1598-1621

Errege onek bere aitaren kezkak onela erabaki zitun: "Erregeen paperak erre bitez, ala sekula agertuko ez diran toki batean gorde... persona jakintsu eta zuzenen bidez arazo au ondo begiratuta gero, ikusten da ez dala kezkentzako arrazoirik izan ez orain eta ez lenago". Era orretara gelditu zan Naparroa betirako Kastilla'ri batuta.

Naparroa'ko Korteek Erregearen juramentua artu zuten Abenduaren 11' an, urtea 1611. Seme oneri buruz esan zuan bere aita Felipe II'gamenak onelako au: "Ainbeste erreino eman didan Jainkoa'k eurak gobernatzeko aña izango dan semea ukatu dit. Bes-teen jostaillu izango dan bildur naiz". Eta alaxen gertatu zan. 1621'en Martzoaren 21'ean il zan.

FELIPE IV (ESPAÑIA'KO) ETA VI (NAPARROA'KO) 1621-1665

Errege au izan zan bere aitaren ondorengo.

Onen seme eta ondorengo, Carlos II, 1632'ean Fueroak juratu zitun eta berriro egingo zuan, bere aita lagun zuela, Maiatzaren 25'ean urtea 1646. "Ogeita amar urteko" gerra, bere aurrekoari jarraitu zion Austria'koen alde, bere senitartekoak ziralako eta erligioagaitik ere bai. Frantzia'kin burrukan, Richelieu Ondarrabi artzeko asmotan etorri zan; baña, naparrek lagunduta, giputzak frantzesak garaitu zituzten.

Zerga geiegizkoak zirala-ta Naparroa eta Kataluña jeiki ziran bere aurka... Flandes'eko gerra galdu eta Flandes'eri askatasuna eman bearrean gertatu zan eta Inperioa urtetzen asita zegoela ikusi zuen, il aurretik.

CARLOS II (ESPAÑIA'KO) ETA V (NAPARROA'KO) 1655-1700

Lau urterekin egin zuten errege eta ama Mariana de Austria'ren babespean egon zan. Ama zuen Felipe bere aitaren illoba eta emaztea. Oso gaixo eta murrizta; ez zekien bere izena idazten bederatzituzte... Austria'ko Etxearen akatzak dira auk: ezkontzak egiten zituzten senitartekoen artean... Apirillaren 10'an, 1677, egin zuen Fuero eta Libertadeen juramentua Naparroa'an.

Segi zuen aurrera bere koñatu, Luis XIV (Frantzia'ko) eta III (Be-Naparroa'ko), aurkako gerra. Galdu ere bai. Ekin dio berriro Holanda, Suecia eta Alemania'ren laguntzarekin... Baña, alperrik. Beti galtzen... 39 urte zituen il zanean 1700'garren Azaroaren 1'ean. Semerik ezean, ondorengo, Felipe de Anjou, Luis XIV eta Carlos'en ameba Maria Teresa'ren billoba... Arazo onek, ordea, ondoren ekarriko ditu.

ARRINDA'TAR ANES

BARTUREN

Oi-oikoa izaten da, gure errian, baserrien izenen artean "goikoa" eta "bekoa" lango izenlagunak egotea, esate baterako, beraren ganean berba egingo dogun Barturen baserriaren kasuan.

Danok ezagututen doguz Barturen Goikoa eta Barturen Bekoa baserriak, eta logikoa dan lez, euren artean zelango edo alango loturaren bat dago. Ona emen, bada, lotura ori azalduten dauan kontua:

Barturen, izatez, etxe bakarra zan, joan dan XIX. gizaldira arte, beintzat.

1704ko fogerazinoetan Juan de Barturen zanarena zala agertuten da an.

Etxe beratan Ursula de Barturen amagaz bizi zan Juan.

Gure errialdean oi zan lez, etxearen izena eta abizena bat ziran, abizena etxearen izenetik artuta, ziurrantzean. 40 urte beluago, 1745ean Domingo de Barturen zan baserriaren jaube eta bizilaguna. Urrengo 50 urteetan, beintzat, bertantxe bizi zan.

Etxea barturendarrena izan zan XIX. gizaldira arte.

Orduan, erriko abadearena izan zan, barturendarra au be.

Esan bear, aldi aretan, sano abade "ospetsua" izan zala errian, aurki.

Torrezarreko Jose Renteriak erosi ei eutson, naiko zaarra zan etxe a. Orrek seme-alaba bi euki ebazan: semea Frantzisko Renteria "Bixer" eta alabea "Eperra" ezizena-gaz ezagututen ebena. Etxea jausteko egon zan, "Bixer" eta "Eperra" neba-arrebak ezkontzeko egozan lez. Alan ba, leenengo-leenego etxea bizileku bitan banandutea pentsatu eben.

Baina, 6000 erreal geiagoagaitik, apur gorabeera, baktokak etxe bana egiteko aukerea euken biok. Eta alantxe egin eben. Etxe bi areek izan ziran, bada, Barturen Bekoa eta Barturen Goikoa. Barturen etxe zaarra orreen biorreen arteko solo baten egon zan. Barturen Goikoan, arrebea lotu zan eta bestean, "Bixer" nebea.

Azken ori San Pelaio eta Zubiaurreko kabu-alkatea izan zan eta Uribarriko alaba bategaz, garaitarra, ezkondu zan. Lau seme-alaba euki ebezan.

Andrea il ekion "Bixer"-eri eta Ibarrangeluko Akordakoa zan Katalin Obietagaz ezkondu zan bigarrenez, berau Bakion neskame egoala ezagutu eban.

Andra orregaz, baina, 7 seme-alaba euki ebazan. Orreatatik, Paula Renteria Obieta jaio zan Barturen Bekoa egin zan urtean, au da 1895ean. Paula baserrian lotu zan eta osterantzeko 6 neba-arrebak Ameriketara joan ziran.

Beste alde batetik, "Eperra" uriartetar zalako bategaz ezkondu zan. Eta semea eben Patxo Uriarte lotu zan, geroago, Barturen Goikoan. Orain, azken onen ondorengoak bizi dira bertan.

Barturen Bekora atzera etorrita, Paula Renteria izeko "Eperra"-ren senarraren lobeagaz ezkondu zan. Madalen Uriarte eta Garaiko Jose Ormaza "Txiki"-ren semea zan Gregorio Ormazagaz. Zortzi seme-alaba azi ebezan eta, gaur egun, Paula eta Gregorioren urrengo belaualdikoak bizi dira bertan.

Auxe da bitan banandu zan baserriaren kontua. Bitan banandua izan arren, biek izen bera daroe, jatorrizko izenak oraindikarren bizirik dirauala: Barturen.

ANARTZ ORMAZA

ZAARRAK BARRI

Ata] onetan Bakioko alde berezi-berezia aurkeztu gura deusuet. Igarriko zenduen lez, eleiza inguruko gunea da, bai. Izatez, Basigo Auzoa lez ezagututen dogu gaur egun, baina leen Bakioko uria edo urigunea bera zalakoan nago.

Jakingo dozu lez, entzutez beintzat, Bakio leen "bakioko Basigo" izan zan, aurreko inguru ori alan izendatuz. Ganera, eleizea bera be an dago.

Toponimiak be alan azalduten deusku. Or daukagu Uribe baserria, beraren izenak dinoskun lez, uriaren been dagoana dala. Au da, leen aitatu dogun Basigo-ko inguruaren been, atan be.

Eta, bestetik, an eskoian, leen Mungiaiko Uriauzoa zana daukagu: Gaubeka, Armurua eta Uriarte baserriek egiten daben ingurua.

Inguru orrek be uriari buruzko aitamena egiten deusku.

Ez dago ezbaierik, a genduan Bakioko uria, edo urigunea, gitxienez.

Ikusi geinken lez, leen gune itxiagoa egiten eben bertan ikusten diran eleizaldek, abadetxeak, Basigok, eleizeak, prestetoriak eta Etxepintok.

Onetatik, gaur egun, eleizeak, Etxepintok eta Basigok baino ez deutsoe joanaren lekukotasunari eusten, Birjinetxe geroago batu jakela.

Alan eta guztiz be, oso inguru berezia izaten jarraituten dau. Leengoa ezagutu dabenek alan gogoratuko daben lez.

Nai ta etxe batzuen utsunea igarri, Bakioko alde orretan denboreak ez dau oker andirik egin. Oba orrelan!

ZER DERITXOZU?

Bakioko itsas ibiltoki barda dala-eta, ainbeste zurrumurru nai esamesa darabilgu erritarrok. Ederto dagoala batzuk, aretzea jaten dauala beste batzuk, Isabel Tocino pozik etorriko litzakela andikoek,...

Alan da ze, auzia bein betiko argituteko asmoz, ZEReko kazetari ausartok kalera jo dogu, Bakioko erritarren agotsa geure aldizkari ospetsuan ozen agertu daiten. Onako itaun zuurak egin deutseguz:

- 1.- Ibiltokia zelan lotu dan gustetan jatzu?
- 2.- Errirako onuragarria dala uste dozu?

Mari Karmen Olazarán

1.- Ez jat guztiz gustetan, ze eskudela eta farolak ez dodaz guztuko.

2.- Baietz, uste dot. Danontzako, batez be zaarrentzat oso erosoa da.

Karmele Uriarte

1.- Badagoz gauza batzuk gustuko ez dodazanak: palmondoak. Beste guztia ondo dirudit. Jesarlekuak motzak dira.

Baiezt-, esango neuke. Jendea pozik dabil eta beti dago beterik, ganera adineko jendea leen aretzara joan ez ta orain beste era bateko aukerea dauka an ibilteko.

Kaitin Amorrortu

1.- Asikera baten, gurago neban ez egitea, baina orain egin da dago eta ez da motza. Txakurraz ezin ibiltea ez jat gustetan.

2.- Onuragarria da, jende askok erabilten dau eta.

Julio Ruiz

1.- Nik pentsetan neban baino politagoa lotu da. Eskudela nai faroletan argi dago Guggenheim eragina dalakoa. Bakioko aretzea gero eta estuago lotutea ez jat gustetan.

2.- Bearleku batzuk sortu dira ibiltokiari esker eta arlo batzuetarako onuragarria izango da.

Irantzu Nuñez eta Bego Makazaga

1.- Guztiz erosoa ez dala pentsetan dogu. Geiago gustatuko litzakiguz eskuburdinea eukitea eta ondoan atzealdedun egurrezko aulkiak. Petril barik ibiltokia zabalago lotuko litzake.

2.- Bai. Inguruko errietatik be jendea etorten dana ikusi dogu, eta ori ona da dendari eta tabernarientzako.

Amaia Agirre

1.- Orokorrean, ederto lotu da. Farolak eta aulkiak "star trek" filmeko "dekoradutik" atara badabez be.

2.- Duda barik, leen aretzea bazter baten lotuten zan neguan eta orain oster, eroso-eroso urte osoan gozatu leiteke itsasoaz.

JOSETXU KILKIR

Berbalapikoa

arrunt = eguneroko, oiko.

atari = atarte, ategi, ataurre.

Military Tattoo = Edinburgh-en

udan egiten

dan ikuskizun militarra.

zuzi = eskuan eroaten dan

sudun taketa.

almena = gazteluetan egoten

dan babestokia.

zirrara = dartada, biotzikara.

Saltire Flying = Eskoziako ikurrina.

beretsu = ia berbera.

jazo = gertatu, pasatu.

zearkatu = egaz egin, igaro.

baldo = ozpal andia.

nini = betsein.

arrubio = lupu (piztia).

gesal = kresal.

= lora.

GARIKOITZ ETXEBARRIA

ESKOZIAKO LOREA

Abuztuaren 14a, zapatu arrunta Edinburgh-en. Bertako gazteluaren atarian uda osoan egiten diarduen urteko ekitaldira sarztekotan, Military Tattoo-ren 50. urteurrena ospatzen dabilz

Arratsaldea, egunak gaurkoz naiko esan dau-eta, badoa zeru urdin argi-argitik ilunagorantza.

Badatoz doinu bandak, atzera eta aurrera, aurrera eta atzera, ibiliaren ibiliaz irudiak curen pausuez egiten, musika lagun dabela.

Ekitaldiak gorantz egiten dau, ilunabarra. Zeru urdin ilunera. Sartu dira Argyll eta Sutherland-eko goierritarrak. Argiak amata egin dabez. Guztiok asi gara begira gaztelu plaza erdira, gaztelu aurrean argi zuziak besterik ez dago.

Bat-batean, Lone Piper gaitajoleak berak bakarrik pieza bat jotzen dau, iluntasunetik urten dau. Eta musikaz argia egin da. An dago, almenen artean. Danok berari begira "Sleep Dearie Sleep" jotzen dau. Maisutasunez.

Zirrarak jotzen nau goitik beera eta beetik gora, alderik eta aldera.

"Saltire Flying" ikurrak, St. Andrews gurutzea aizeak astindua, Leoi gorriagaz batera, asagoraino naroa, lurak eta zeruak bat egiten daben lekuraino. Mendebalderantza. Abuztuaren 14a. Gaueko artizarra, tokian tokiko Eskoziako torea, Bakioko larrosa beilegi dantzaria aideak dira.

Abuztuaren 14a, musika saio au ikusten nagoan ordu bere-tsu, azkenengo urteeetan ondartzan izan naz. Salbearen eguna. Donostiako Salbea entzuten, eta beti itsasoak eta zeruak bat egiten daben lekuan begiak ipinita. Urtero zirrara berak jo nau. Iparraldera begira.

Aurtengoan, gauza bera jazo jat atzerrian, baina bertoko eginik, euskal highlandarra izan naz. Arro, Eskozian eskoziar senti-du naz, baina "Saltire"-gaz batera, geurea, ikurrina. Edinburgh-eko zerua zearkatzen ikusi dot. "Sleep Dearie Sleep"-ek gogora ekarri deust. Arro nire erriaz.

Baita egun oneetan Edinburgh-eko teatro ikuskizunak egiten diran kalearen ertz baten txistua eta danbolina jotzen dagoan gazteaz be, gure erriko doinuak munduko beste puntan bera zabal-tzen ikusita.

Mr. McAhala, eskoziar euskalduna, euskaldun eskoziarra. Edinburgh-Bakio

"SUSTRAIAK AN DITUENAK"

Nekez uzten du bere sol-terna

sustraiak an dituenak.

Nekez uzten du bere lurra zuaitzak

ez bada baldo eta ooletan.

Ez du niniak begia uzten ez

bada erroi edo arrubioen mokoetan.

Nekez uzten du gesalak itsasoa,

ez are arriak basamortua.

Ez du liliak udaberria uzten,

ez elurak zuritasuna.


Bere sorteria nekez uzten du

sustraiak an dituenak.

J. Sarrionaindia

"Izuen gordeleku barrena" 25. orr.

EUSKALDUN BARRIENTZAT



Lotu zenbakiak eta marrazki bat agertuko da.

	+		-		:		=	2
+	□	+	□	+	□	+	□	□
	×		-		:		=	2
-	□	+	□	+	□	:	□	□
	+		:	7	+	0	=	2
+	□	-	□	-	□	+	□	□
	+		+		:	4	=	2
=	□	=	□	=	□	=	□	□
6	□	6	□	8	□	4	□	☀

	+		-		+	1	=	6
+	□	+	□	×	□	+	□	□
	×		-		:		=	5
-	□	+	□	:	□	+	□	□
	×		:	2	+		=	9
-	□	+	□	+	□	+	□	□
	-		+		+		=	9
=	□	=	□	=	□	=	□	□
0	□	9	□	7	□	8	□	☀

Azalpena


□	□	8	□	7	□	6	□	0
□	□	=	□	=	□	=	□	=
6	=	8	+	2	+	4	-	8
□	□	+	□	+	□	+	□	-
6	=	2	+	2	:	2	×	4
□	□	+	:	□	+	□	-	□
5	=	2	:	2	-	2	×	6
□	□	+	□	×	□	+	□	+
6	=	1	+	5	-	1	+	6
☀	4	4	8	6	6	6	6	6
□	□	=	□	=	□	=	□	=
2	=	4	:	2	+	5	+	1
□	□	+	-	-	-	-	□	+
□	□	:	+	+	+	+	□	+
2	=	0	+	7	+	8	+	2
□	□	+	□	+	□	+	□	-
□	□	:	□	+	□	+	□	-
2	=	4	:	2	-	2	×	5
□	□	+	□	+	□	+	□	+
□	□	+	□	+	□	+	□	+
2	=	3	:	1	-	1	+	6

Ipiñi zenbakiak, eskerretik eskumara, ta goitik bera. Azken zenbakiak aldatu barik.



Colón de Larreategi, 14 - 2.º dcha.
48001 BILBAO

Akelarre. Nestor Basterretxea



BAT GATUZ EUSKAL KULTUREAGAZ

Erakundearen konpromezutzat
artuten dogu, geure erri onen
arimeagaz bat egitea. Orrexegaitik
lagunduten deutsegu gogo osoz,
geure nortasun berezia indartuten
deuskuen kultur adierazpenai.

Eta aparteko arreta iminten
deutsagu, kultur adierazpenen
artean, gure ezaugarririk gorena
dan euskerearen garapenari.

EZ DAGO GEIAGO ESKINTZEN DAUANIK

BBK

Bilbao Bizkaia Kutxa